Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felipe Etxeberria Telleria

Legazpi, Gipuzkoa (1935)



Aurkibidea

Biografia



1935ean jaio zen Legazpiko Brinkola auzoko Ariztigoikoa baserrian. Aita bertakoa zuen, eta ama Mutilokoa; lau senidetan zaharrena da. Legazpiko Artzain Ona ikastetxean ibili zen. Legazpiko paper-lantegiko gerentea Feliperen aitaren lehengusua zen, eta bazkalostean haren etxera joaten zen terrenoak neurtzen ikastera. "Pintxe" lanpostua lortzeko aukera izan zuen paper-lantegian; baina aitak ez zion utzi, baserrian lagun ziezaion behar zuela-eta.

Zintak

LGA-053

- **Proiektua**: Legazpiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Data**: 2010-07-27
- **Iraupena**: 77 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Artzain Ona ikastetxean ibilia

- **Erref**: LGA-053/005
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:03:54. **Bukatu**: 00:04:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Legazpiko Artzain Ona ikastetxean egin zituen ikasketak. Bost urte egin zituen ikastetxe horretan. Ikastetxe horretan sei gela ziren; 140 ikasle inguru.

2. Marmita bat esne familiakoei

- **Erref**: LGA-053/006
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:04:39. **Bukatu**: 00:05:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:
Eskolara joaterako, familiako batzuen etxean marmita bat esnea entregatzen zuen. Etxerako eta ezagunentzako izaten zuten esnea, gehien bat.

3. Ostiraletako periara, arrautzak saltzera

- **Erref**: LGA-053/007
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:05:04. **Bukatu**: 00:06:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Baserrian 30-40 oilo izaten zituzten, eta soberan izaten zituzten arrautzak ostiraletako Legazpiko feriara eramaten zituen saltzera Feliperen amak. Baserritik herrira oinez joaten zen, eta bi saski eramaten zituen arrautzez beteta. Ateratako diruarekin, etxerako beharrezko gauzak erosten zituen.

4. Artzain Ona ikastetxea eta Brinkolako eskola

- **Erref**: LGA-053/011
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:10:10. **Bukatu**: 00:12:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
1944an hasi zen Legazpiko Artzain Ona ikastetxean. Bost urte egin zituen ikastetxe horretan. Brinkolan eskola bazen, Brinkola eta Telleriarteko umeentzat; hango eskola ume txikientzat izaten zen. Gero, Legazpin jarraitzen zituzten ikasketak.

5. Irakasleak jo, euskaraz egiteagatik

- **Erref**: LGA-053/014
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:13:46. **Bukatu**: 00:16:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Eskolako kontua. Legazpin gaztelania asko egiten zen. Eskolan, euskaldunekin elkartzen zen hasieratan; euskaldun gehienak Brinkola, Telleriarte eta Aztiriakoak izaten ziren. Euskaraz egiteagatik irakasleak jo zuenekoa kontatzen du. Zaplaztekoa eman zion maisuari buruz hitz egiten du; Azkoitiko baserri batekoa zen, eta hark ere ez omen zuen gaztelaniaz ondo hitz egiten.

6. Eguerdietan, 'Cara al Sol' kantatu behar

- **Erref**: LGA-053/015
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:16:36. **Bukatu**: 00:17:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Eskolako kontua. Diktadura garaia zen. Eguerdietan, eskolatik irteeran, Cara al Sol kantatzen zuten.

7. Eskolan sartzerako, oinetakoak aldatu behar

- **Erref**: LGA-053/016
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:17:07. **Bukatu**: 00:18:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Eskolara oinetako batzuekin joaten ziren, eta han beste alpargata batzuk janzten zituzten. Kaxoi batean gordetzen zituzten oinetakoak; mutiko bakoitzak zenbaki bat izaten zuen oinetakoak lagatzeko.

8. Aitak baserriarekin jarraitzea nahi

- **Erref**: LGA-053/017
- **Iraupena**: 0:05:41. **Hasi**: 00:18:17. **Bukatu**: 00:23:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Eskola egunetan, Legazpin bizi ziren izeba-osaba batzuen etxera joaten zen bazkaltzera. Bazkal ondoren, osabaren lankide baten etxera joaten zen lurra eta egurra neurtzen ikastera. Gizon hark Legazpiko paper-lantegian egiten zuen lana, eta nahi zuen Felipek ikasketak bukatzen zituenean berarekin "pintxe" moduan hastea. Feliperen aitak esan zion semearen laguntza behar zuela baserria aurrera eramateko.

9. Errazionamendu ogia Mendibildik behera botaz gero...

- **Erref**: LGA-053/021
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:26:25. **Bukatu**: 00:28:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra ondorenean, Bidaniko mutil bat izan zuten baserrian laguntzaile moduan. Hark errazionamenduko ogiari buruz zer esaten zuen kontatzen du.

10. Azeri harrapatzailea

- **Erref**: LGA-053/023
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:28:31. **Bukatu**: 00:30:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azeriak harrapatzeko zaletasun handia izan du Felipek. Aita ibili ohi zen azeriak harrapatzen, baina ez Felipe adina.

11. Azeria harrapatzeko zepoa eta kutxa

- **Erref**: LGA-053/025
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:34:38. **Bukatu**: 00:37:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azeriak harrapatzeko zepoa eta kutxa erabiltzen zituen; nolakoak izaten diren azaltzen du. Kutxak berak egiten zituen; Zeraingo gizon bati ikusita ikasi zuen kutxak egiten.

12. Azerien ezkutalekuak

- **Erref**: LGA-053/026
- **Iraupena**: 0:00:29. **Hasi**: 00:37:44. **Bukatu**: 00:38:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azerien ezkutalekuak ditu hizpide.

13. Azeriak harrapatzeko lazoa

- **Erref**: LGA-053/028
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:38:22. **Bukatu**: 00:40:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azeriak harrapatzeko lazoa ere erabiltzen zuen; nolakoak izaten den azaltzen du. Ehizari buruz hitz egiten du.

14. Azeriaren arrastoa

- **Erref**: LGA-053/029
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:40:09. **Bukatu**: 00:41:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azeriak harrapatzeari buruz hitz egiten du. Azeriaren markak antzematea, nolako arrastoa uzten duen...

15. Azeriak eta oilategiak

- **Erref**: LGA-053/031
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:43:06. **Bukatu**: 00:44:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Hazitako azeriak botatzen zituen, arriskua sortzen zutelako. Garai batean, baserri gehienetan oilategia izaten zen, eta oiloak libre ibiltzen ziren. Azeriek eraso egiten zien oiloei, eta, orduan, azeriak harrapatzen ziren.

16. Azeria eta azkonarra

- **Erref**: LGA-053/033
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:45:15. **Bukatu**: 00:46:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azeria lepo gainetik heldu behar izaten da. Azkonarrak, berriz, azal lodiagoa izaten du, eta eskuekin heltzerakoan kontuz ibili behar izaten da.

17. Azeria harrapatutakoan, eskean baserriz baserri

- **Erref**: LGA-053/036
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:47:27. **Bukatu**: 00:48:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Lehen, azeria botatzea libre zegoen. Azeria harrapatzen zen garaian, mutikoak eskean ibiltzen ziren baserririk baserrira; azeriak kalteak eragiten zituelako. Baserritarrek, zerbait eman ohi zuten azeriengatik babestearren.

18. Azeriaren larrua

- **Erref**: LGA-053/038
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:48:36. **Bukatu**: 00:52:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azeria nola larrutzen den azaltzen du. Larrua traperoei saltzen zien. Larruaren kalitatearen arabera erabakitzen zen haren prezioa. Larruaren kalitateaz hitz egiten du: azarotik urtarrilera bitartean larru hobea; otsailetik aurrera, berriz, azeriak ilea berritzen hasten dira, eta larruaren kalitatea ez da hain ona izaten. Prezioak aipatzen ditu.

19. Azeriaren haragia

- **Erref**: LGA-053/040
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:52:45. **Bukatu**: 00:53:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Ez du sekula jan azeriaren haragirik. Azeriaren pizak kiratsa botatzen du.

20. Azeria larrutzea

- **Erref**: LGA-053/041
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:53:53. **Bukatu**: 00:54:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azeriak harrapatutakoan, ganbaran eseki eta larrutu egiten zituen. Larrutu ondoren, lurperatu egiten zituen. Txakurrei ez zaie gustatzen azeriaren haragia.

21. Albaceteko azeri harrapatzailea Arantzazun

- **Erref**: LGA-053/044
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:55:56. **Bukatu**: 00:56:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Arantzazu aldean azeri ugari ibili zirenekoaz hitz egiten du. Albacetetik azeri harrapatzailea ekarri omen zuten.

22. Azeriaren erasoa

- **Erref**: LGA-053/045
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:56:37. **Bukatu**: 00:58:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Normalean, azeriek oiloei erasotzen die. Ardiei erasotzen die "gaizki" ikasten dutenean. Garai batean, Urbian eta Legazpiko mendietan azeriek ardiei eraso egiten omen zien. Artzainek ardian multzoan bildu, eta txandaka zaintzen omen zituzten. Azeriak lepo aldetik erasotzen zituen ardiak.

23. Azeria, frutazalea

- **Erref**: LGA-053/046
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:58:39. **Bukatu**: 00:59:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azeriaren elikaduraz hitz egiten du. Azeriak fruta ugari jaten omen du. Mahatsa, gerezia, "arantximiloa", basarana, masustak, sagarra... jan ohi ditu.

24. Azerien ohiturak

- **Erref**: LGA-053/048
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 01:00:10. **Bukatu**: 01:01:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Normalean, azeriak gauez ibiltzen dira batetik bestera. Azerien ohiturei buruz hitz egiten du; animalia garbia dela dio.

25. Azeria eta trikua

- **Erref**: LGA-053/049
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 01:01:29. **Bukatu**: 01:02:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azeria oso gaizki konpontzen da trikuarekin. Triku batek azeria kobatik bidali zuenekoa kontatzen du.

26. Azeriak usaimen ona

- **Erref**: LGA-053/051
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 01:02:42. **Bukatu**: 01:03:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azeriak usaimen ona du. Usaimenaz baliatzen da ihes egiteko, elikatzeko...

27. Basurdeak ehizatu, "karanbolaz"

- **Erref**: LGA-053/056
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 01:07:39. **Bukatu**: 01:10:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Lagun batekin usoak ehizatzera joan, eta lau basurde ehizatu zituztenekoa kontatzen du. Bularrera, burura... egin behar izaten zaio tiro basurdeari.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-04

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com